



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Nilometroak ekonomia aurreikusteko

Eromatar Inperioa, K.o. I. mendea. Plinio Zaharrak (23-79) zera idatzi zuen *Naturalis Historia* lanaren bosgarren liburukian: “Ur goraldia 12 ukondokoa denean gosea dago; 13koa bada, urritasuna dago; 14koak poza dakar; 15ekoak, segurtasuna, eta 16koak, joritasuna, gozamina eta plazer”. Nilo ibaiaren uhaldez ari zen, zehazki, egun *nilometro* esaten zaien neurgailuen emaitzez.

Nilometroak Nilo ibaiaren ibilgu naturaletik hurbil eraikitzen zituzten era askotako eskalak ziren: eraikin konplexuak ziren batzuk, beste batzuk putzu soilak edo harrian zulatutako eskailerak. Urak ekainean hasten ziren gora egiten eta iraila hasiera arte nilometroetako mailak gainditzen joaten zen. Modu horretan, neurtzen zen urteko uhaldiaren bolumena.

Antzinako Egipton, basamortua zeharkatzen duen Nilo ibaia funtsezkoa zen nekazaritzan eta, beraz, ekonomian. Uzta oparoa nahi bazuten, muturreraino aprobetxatu behar zituzten ibaiaren urak eta nilometroek uzta kaxkarra edo bikaina izango zen aurreikusten eta, beraz, ekonomia aurreikusten laguntzen zien. Besteak beste, nekazariak urtero ordaindu behar zituzten zergak nilometroen emai-



NARMER FARAOIAREN TENPLUKO MARGOLAN BATEN FAKSIMILA, FARAOIA ETA BERE FAMILIA NILO IBAIAK EMATEN DUENA BILTZEN ERAKUSTEN DUENA.

tzaren arabera kalkulaten ziren. Datuak jaso eta interpretatzeaz tenpluetako sazerdoteak arduratzen ziren, eremu espiritualaz harago, botere politiko eta ekonomiko handia zuten seinale.

Ur goraldia eskasak, Pliniok jaso bezala, gosea eragingo zuen, ura ibaitik urrunen zeuden labore lurretara ez baitzen iritsiko. Baina uhaldi handiegiak

ere ez ziren komeni; ibaiak dikeak eta kanalak suntsituko zituen eta ura atxikitzeako sistemak funtzionatu ezean, ezin uzta onik lortu.

Aswango bigarren presa eraiki zutenetik (1959-1970), hark erregulatzen du Niloren emaria eta inork ez die begiratzen nilometroetako eskailera maileri ekonomiaren aurreikuspena egiteko”. ●



Fabricius, Rosetta harri berria

Googlek duela bi urte proiektu bat jarri zuen martxan, hieroglifikoak dekodetzen dituen Fabricius aplikazioa sortzeko, eta berriki erabiltzaile guztien eskura jarri du doan. Adituek lehen analogikoki bilaketa astunak egin behar zituzten hieroglifikoaren esanahia jakiteko, eta orain aplikazioak 15-20 minututan egiten du itzulpena, hieroglifikoaren argazkia kalitatezkoa bada behintzat. Horretarako adimen artifi-

ziala erabiltzen du aplikazioak, hau da, makinek ikasteko duten ahalmena. Adituak ez direnentzat, lan egiteko atalaz gain, ikasteko eta jolasteko aukerak ere ematen ditu.

Aplikazioari Georg Fabricius (1516-1571) epigrafiaren aitaren omenez jarri diote izena, eta oraingoz soilik ingelesez eta arabieraz erabil badaiteke ere, aurrerago hizkuntza gehiago sartzeko asmoa dute. ●